



# ALTUNA I.A BIGARREN TXAPELAREN BILA

Erremonteko binakako zortzigarren finala jokatu du gaur amezketarrak Etxeberria III. arekin batera, Galarretan >4

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2008-01-12**

VIURTEA 1.334.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Jende asko izan zen atzoko inaugurazioan. Gaztetxo batzuk lehen unetik hasi ziren irakurtzen. N.URBIZU

## ATZOKO IREKIERAREN OSTEAN, MARTXAN DA LIBURUTEGI BERRIA

**BIDEGOIAN** Balioanitzeko zentroko bigarren solairuan dago kokaturik; txoko desberdinetan banatuta dago, eta Wi-fi sistema ere badu 5

**ASENTSIO ONDARZABAL** EREIN ARGITALETXEKO SORTZAILEA

«Nahi adina lan kaleratzeko gai ez dira argitaletxeak»

**TOLOSA** Euskal Herriko idazle gehienak ezagutu ditu, eta haien lanak kaleratzeko lan egin du 6-7

## Datozen lau urteetarako aurrekontuak onartu dituzte

**AMEZKETA-IBARRA** Azken Udalbatzetan onartu zituzten; Ibarran %25eko igoera izan dute 3/5

**Unai Garmendia pilotariak profesionaletan egingo du debuta bihar**

**AMEZKETA** Zazpi-Itturri Pilota Eskolan aritu da; Frontisekin sinatu du 4

**Hiru leitzar ariko dira aizkoran bihar, Lekunberriko saioan**

**LEITZA** Rekondo Urrezko Aizkoran eta Olano eta Saralegi etorkizunekoetan 2



Haur ikuskizunerako  
**5 sarrera pare**

**Xurdin  
eta gorringo lakuaren istorioa**

urtarrilak 12, larunbata • 17:00etan  
Tolosako Leidorren

irabazleak:

- Oihana Agirre (Tolosa)
- Arantza Amonarriz (Tolosa)
- Maria Ondarretxe (Berrobi)
- Peio Etxabe (Tolosa)
- Elena Askarai (Tolosa)



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilak bertan izango dituzue

**L** **Laburrak****Abiba diskojaia izango da gaur, Beotibar frontoian**

**TOLOSA** ● Abiba diskojaia izango da gaur gauean, berriro ere, Beotibar frontoia astintzeko asmoz. Jaialdia 22:00etan hasiko da eta 05:00ak arte luzatuko da.

**AEKn izena emateko epea irekita dago oraindik**

**EUSKARA** ● Tolosaldeko AEKn euskara ikasi edo hobetu nahi dutenentzako matrikula epea irekita dago. Eskualdeko hainbat herritan dagoeneko euskara taldeak antolatatu ziren urrian eta oraindik ere aukera dago talde hauetan hasteko: Villabona, Irura eta Zizurkilien. Matrikulazio epea otsailaren 1ean amaituko da eta bulegoa 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara dago zabalik. Informazio gehiago 943 591704 telefonora deituta.

**Euskara irakasteko ikastaroa martxan da**

**EUSKARA** ● AEKn euskara irakasteko glotodidaktika ikastaroa presatatu dute. Bertan izena emateko epea irekita dago. Hau 943 32 71 72ra deituta egin daiteke

**T Telefonoak**  
**Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.****Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbola:** 943 006900**Amarozko dispen:** 943 672637**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536**Gurutze Gorria:** 943 674888**Villabona.** Anbulat.: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930**GARRAIOAK.****Renfe:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosaldea bus:** 943 650621**Leitzarar autob.**: 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leitza):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858**Tolargi:** 943 650016**Iurramendi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320**Tolosar ugarik sinatu dute Aldarria dagoeneko**

**TOLOSA** ● Euskal Herri osoan bezala, hainbat eta hainbat tolosarrek «Euskal Herria Independentziaren aldeko Aldarria»rekin bat egin dute. Aldarria sinatzean herritar hauek, besteak beste zera diote: «Euskaldunok gure Estatua osatu behar dugu eta horretarako urrats zehatzak eman behar ditugu». Honen batera, gaineratzen eta aldarrikatzen dute baita ere, «ezkerretik gure eredu propioa eraiki nahi dugula». HITZA

**Olentzoko trafikoa zuzentzeko biribilgunea egitea onartu du Udalak**

**Zizurkil** » Egungo «pabilioi indurrietako trafikoa erregulatzea eta arrisku egoera konpentea» da proiektuaren helburua.

**ERREDAKZIOA**

Zizurkilgo Udaleko Gobernu Batzordeak 29 Sektoreko hirigintza-jarduketako programa behin betikoz onartzea erabaki du. Aipaturiko programak Olentzoko gunean, «gaur egun hain arrisksua den horretan», pabilioi industrialetako trafikoa erregularizatzeko duen biribilgunea berri bat eraikitzea jasotzen du. Onarturiko plana jendau-

rrean erakusgai egon ostean, eta inolako alegaziorik jaso gabe onartu da.

Zizurkilgo Udalak duela urte batzuk izan zituen lehenengo elkarrizketak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bideen Azpiegitura sailarekin herri honetako 29 Sektorean, hainbat pabilioi industrialen kokagune den horretan, dagoen trafikoa handiaren arazoa konpontzeko asmoz. Bileran hauetan Asteasu Udalak ere hartu zuen parte, eta gune horretako zirkulazioa erregularizatzeko biribilgunea egitea komeni zela ondorioztatu zen.

Gaur egun, industrialdean sartu behar duten ibilgailuek GI-2631

errepidetik zuzenean egiten dute, eta honetan ez dago biratzeko edo esparruan sartzeko inolako araudirik. Egoera honek arriskua eragiten du, ezkerretara biratzeko orduan batez ere, bai Elbarrenatik sarterakoan bai Asteasurako noranzkoan sarterakoan. Eta arazoa are larriagoa da errepidearen bidegurutzean, Asteasuko industrialdean sorturiko trafikoa ere zirkulazioa are ugariagoa bilakatu baita.

Sarbidetaren berrantolaketa egoki honek egungo egoera konpontzeko duen biribilgunea bat eraikitzea aurreikusten du. Hori egin ostean, sektoreak bi sarrera

izango ditu. Lehenengo biribilguneetik egingo da, mendebaldeko eta ekialdeko partezetara eta Asteasuko industrialdeara sartzeko. Bigarrenak berriz, Zubizarreta Eneatik abiatu eta Ekialdeko partezetan sartzeko aukera emango du hemendik aurrera.

Onarturiko proiektu honek berdegune batzuk erreserbatzea ere aurreikusten du bere baitan, eta hala, parke bat, bide publikoen bazterretan lorategi zertrenda bat, eta biribilgunearen erdian halako lorategi bat atonduko dira. Orotara 6.500 metro karratuko azalera hartuko du egitasmoak, eta 56 plaza berri sortuko dira aparkalekuan.

**Hiru leitzar aizkoran, bihar Lekunberrin**

**Leitza** » Besteak beste, Larretxearekin Rekondo ariko da Urrezko Aizkoraren Binakako Txapelketan.

**ERREDAKZIOA**

Urrezko Aizkoraren Binakako Txapelketako azken aurreko jardunaldiari dagokion azkeneko fasea jokatuko da bihar eguerdian. 12:30ean hasiko da saioa eta Lekunberriko frontoian jokatuko da. Bertan, aurrez aurre izango dira, Mikel Mindegia eta Jon Rekondok osatutako bikotea eta Fausto Mugerza eta Juan Jose Barberekin osatutakoa.

Lekunberriko hitzorduan du-



Jon Rekondo Leitzaiko aizkolaria. N. GARZIA

ten guztia eman beharko dute aizkolariek. Izan ere, bertan erabakiko da zein bikote sailkatuko den final-laurdenetarako. Hala, garaileak txapelketako hurrengo fasera igaroko dira, eta galtzaileak norgehiagokatik at geratuko dira.

**Etorkizuneko txapelketa**

Urrezko Aizkoraren Binakako Txapelketako norgehiagokaz gain, bihar, Lekunberrin beste topaketa bat ere gauzatuko da. B kategoriariko aizkolarien lehen jardunaldia jokatuko da bertan. Non Ohian eta Garikoitz Larretxea Olano eta Ruben Saralegiren kontra lehiatuko diren. Dena den, hauek ez dira bihar jokatuko diren norgehiagoka bakarrak, beste bat ere izango da.

## S Soka motzean

### «Ardoa konpainiaz eta tertuliaz gozatzeko edabe magikoa da»

**JOSU OZAITA**

Denak Tabernako nagusia



A. IMAZ

**A. IMAZ**

Garai bateko bertsolari sena duen Tolosako Denak Tabernako nagusia da Josu Ozaita (Ibarra, 1980). Kupel artean gustura ibiltzen da.

#### Ardoa edo sagardoa?

Edateko ardoa eta sagardotegiko giroa.

#### Zer da ardoa?

Konpainiaz eta tertuliaz gozatzeko edabe magikoa.

#### Zer da sagardoa?

Txuleta bultzatzeko edari freskoa. Astean zeharreko parranda txikia.

#### Zer da txakolina?

Egiatzkoa edo gezurretazkoa? Tabernari batzuk Madriletik ekartzen dute ardo txuriaren sobra txarrak, gasa sartu eta hori saltzen dute prezio berean.

#### Zer da kata bat?

Ardoaren usaimena, ahoko taktoa eta zaporea aztertzen dituen hobby plazerteroa.

#### Ardo on batek zer eduki behar du?

Usain handia, egur gutxirekin, ahoan edaterakoan sendoa eta bukaeran zapore ona uzten duena.

#### Eta parrandarako zein?

Hirurekin mozkorkeri latza. Sagardoa lasaia goa, txakolina erraz hartzen dena, baina gero erotzen zaituena, traidorea eta ardoa ezagutzen dugunez, kontrolatzeko errazagoa.



Ibarrako udaletxean burututako Ohiko Udal Bilkuraren irudia. ASIER IMAZ

## 2008ko aurrekontuak %25 inguru igoko dira iragan urtekoarekin alderatuta

**Ibarra** » Azken Ohiko Udal Bilkuran 2008 urteko aurrekontuak onartu zituzten EAJ, EA eta EB alderdiek.

**ASIER IMAZ**

Ibarrako Udalak 2008rako aurrekontuak onartu zituen iragan abenduaren 21ean egingiko Ohiko Udalbatzarrean.

EAJ, EA eta EB alderdietako beheratze zinegotzietatik baiezko botua eman zuten, PSE-EBren bi zinegotziak abstentzioa bozkatu zuten. ANV-EAeko kideek, «aurrekontuak ezkutuan eta gurekin eta herriko taldeekin kontatu gabe» onartu zirela salatu du. Honekin batera, Jesus Mari Olazabal Martinez idazkariak eginiako akta kriti-

katu dute, «plenoaren inguruko aktan herritarrek eta EAeko ordezkariok aipatutakorik ez da agertzen». EAek hurrengo bilkuran argibideak eskatuko dituela azaldu du.

#### 6.298.164 euro

Ibarrako EAJ, EA eta EBk sei milioi euro inguruko aurrekontua onartu zuten urte honetarako. 2007ko aurrekontuarekin alderatuz %24,45 igoera aurreikusten duen aurrekontua.

6.298.164 euro hauetatik, %50a udaletxeak kontratatutako langileei eta politikoei (%20,52) eta ohiko gastuetara (%29,93) zuzendua egongo da. Benetako inbertsioetan %31,06a erabiltzea aurreikusten delarik.

Transferentziei dagokienez (%16,42), hau da, talde, erakunde

eta pertsonen zuzendutako diru laguntzak ia %50 igoko dira 2007. urtetik aurtengo urtera, aurreikusien arabera.

#### «Helburu nagusiak»

Aurrekontuen onarpenarekin batera, Chelo Romeo alkateak (EAJ) legealdi honetarako helburu nagusiak zehaztu zituen. Bere esanetan, «plan orokorra egitea izango da helburu nagusietako bat, etorkizunerako etxebizitza eskaintza bat aurkezteko».

Hirugarren adinekoiei begira, alkateak «Eguneko Zentroa eta Jubilatuen Etxea bertara eramateko» helburuak azaldu zituen.

Ingurugiro Departamentuaren sortzeko ahaleginak egingo dituztela ere aipatu zuen Chelo Romeok, energia berriztagarrien aldeko apustuarekin batera.



Ibarrako Belabieta kiroldegian Spinning ikastaroa antolatuta dute. HITZA

## Ibarrako spinning ikastaroan izena emateko aukera

**A. IMAZ**

Ibarrako kirol teknikariak jakinarazi duenez, aurtengo urterako antolatuta berri duten spinning ikastarorako, oraindik plaza libre batzuk geratzen dira. Horren ondorioz, ikastaroetan izena eman nahi du-

nak astearteetan eta ostegunetan izango du horretarako aukera, 19:30etik 20:30era, Belabieta kiroldegian.

Informazioa jaso nahi izanez gero, 943 67 15 44 telefono zenbakira deitu beharko da.

**@ Eztabaidak.** Azken hilabeteotan hainbat lapurreta egin dituzte Tolosaldean: Alegian, Orendainen, Iruan azken asteetan... Dirudienez, lapurrek badakite non sartu eta nola. Zer iritzi duzu? Zer-bait egin daiteke hau ekiditeko? Zer bilatzen dute? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia eta eztabaidatu bertan aurkitzen diren esanak oinarritzat hartuta. Horretaz gain, eztabaidatu nahi dituzun gaiak aurkezteko aukera izango duzu ondorengo web orriara sartuta:

[www.tolosaldehitza.info](http://www.tolosaldehitza.info)

## Iragarki laburrak

#### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Berrobin pisoa salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Dena kanpoaldera eta bista ederrekin. Ganbara eta garaiea. 205.000 euro. 699 4136 25.  
■ **Rodilloa.** Txirriinduarentzako rodilloa. 699 60 91 40.  
■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900 TDI. 130 zaldi. 620 72 76 91.

#### LANA

■ **Hezitzaileak.** Tolosako haur eskola batek lanposturako haur hezikuntzako hezitzaileak behar ditu. Bidali kurrikuluma 289 postakutxara.  
■ **Zaintzaileak.** Tolosan emakumea behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 626 86 89 14.



# Liburutegi berriarekin, zerbitzu berria martxan da

**Bidegoian** » Herritarrek ikusi zuten honen beharra eta horri erantzunez, balioaitzeko zentroko goiko solairuan egin dute.

## NEREA URBIZU

Atzo arratsaldean Bidegoiango liburutegia inauguratu zuten. Zerbitzu berria izango da, duela 17 urte izan ez duena. Balioaitzeko zentroko bigarren solairuan dago, eta 80 bat metro karratu inguruko espazioa da. Bertan, bakarrak liburuak daude oraingoz, baina zabalitzen joango dira, ikus-entzunezkoak ere gehituz.

Wi-fi sistema ere badago, beraz, ordenagailu eramangarria eramaneraz, bertan Internetarako konexioa izango da.

Txoko edo atal ezberdinak daude: mahai handi bat 12 bat laguntzako, txiki-txoko bat (6-7 urte ingurukoentzat) eta prentsa irakurtzeko gunea. Liburuak honela daude ordenatuta: helduentzako nobelak, kontsulta gunea (hiztegiak, entziklopediak...), euskal atal bat (Euskal Herriarekin lotutako



80 metro inguruko da liburutegia. Momentuz 4.500 liburu inguru daude n. u.

ak, gai orokorretarako kontsultak (medikuntza, matematika...) eta 8 urtetik goragokoentzako literaturara atala.

## Gutxinaka ahazten

Momentuz 4.500 liburu inguru daude: garai batean liburuak ere bazituen herriak, 1988tik 1991ra arte, gutxi gorabehera, erabili z-

tuztenak. Geroztik bilduta zeuden eta horiek ere hartu dituzte. Orain, aulkiak eta erabilera besterik ez da falta. Obrak joan den urteko ekainean hasi zituzten eta Udalarai 160.000 euro inguru kostatu zaio.

Atzokoan, liburutegia jendez bete zen, irakurtzeko txokoa nola gelditu den ikusteko: «Txukuna geratu da, ederra», zioten.

# «Herritarrek bultzatu dute»

**BEGOÑA OLAMUSU** » Liburutegiko arduraduna

**Kultura** » Astean bitan izango da liburutegiaren zerbitzua herritarrentzat Berrobiko liburutegian lan egiten duen langilearekin.

## N.URBIZU

Begoña Olamusu (Tolosa, 1965) Berrobiko liburutegiko arduraduna izan da orain arte. Hemendik aurrera, Bidegoianen ere izango da astelehen eta asteazkeneko: be-

raz, bi liburutegietan. Ilusioz eta gogotsu dago tolosarra.

**Gogoz zaude Bidegoianen lan egiteko. Zer espero duzu jendearengatik?**

Ilusioz, eta gogoz nago. Zerbitzua ona da eta tokia oso aproposa. Azken finean, ohitura berri bat sortzea da jendearengan, baina herritarren beharretik etorri da liburutegiarena, hau da, jendeak bultzatu duen zerbitzu hau: guraso elkarteak bultzatutakoa, eta herriko hainbat eragile edo taldek.

Horregatik, jendearen aldetik hasierara ona espero dut.

**Nola dioa maileguren kontua?**

Liburutegi arruntten berdina da, hau da, mailegua eskatu behar da liburu bat etxera eramateko, 15 egunez gehienez eduki daiteke liburu etxean... Txartelak beste liburutegietarako balio du, tartean, Tolosaldeko guztietarako.

# Eskolako frontoiko obra egingo dute

**Amezketak** » Abenduko osoko bilkuran EAE-ANVren bi mozioak onartu dituzte, eta diru laguntza batzuk zehaztu dituzte.

## ERREDAKZIOA

Amezketan egindako azken bilkuran, besteak beste, Zumadi eskolako obrekin lotutako proiektuak onartu egin dituzte.

## Eskolari dagozkionak onartuta

Eskolako frontoiaren eraberritze obraren proiektua eta aurrekontua onartu dute, eta Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailari diru laguntza eskatu diote. Zumadin dituzten beharrik larriak aztertutik, frontoiaren eraberritze lanak eta parke berriaren instalakuntza lanen proiektua egiteko eskatu zaio udal arkitektoari. Aztertu ondoren, ontzat eman dute proposamena 196.723,88 eurotan.

## Eragileentzako diru laguntzak

Tokiko Agenda 21ean, herririko behin betiko ekintza plana, Aalborg gehi 10 irizpideak Euskal Herriko jasangarritasunerako konpromisoak onartu dituzte: alkate-

akadierazi du, Udalakurrianonartutako diagnostikotik abiatuta, hurrengo urteetan zuzenduko duen helburu batzuk finkatu direla. Beraz, onartzen da Agenda 21eko Behin.Betiko Ekintza Plana.

Kulturari dagokionez, musika eskolari 450 euro, pilota eskolari 1.500, guraso elkarteari 500 edota adinekoen elkartearen lokalari 1.800 euro emango zaizkie. Kultur Etxeari dagokionez, herri ezberdinetakoak bisitatu dituzte eta gutxi, gorabehera, programa zein izan litekeen finkatzen hasi dira.

## EAEren mozioak onartuta

Euskal Herriaren eskubideen alde EAE-ANV aurkeztutako mozioak onartu dituzte (18/98ko epaiak herri honen eskubideen aurkako urraketa eta Guardia Zibilak giza eskubideen aurkako ekintzen salaketa). Alkateak adierazi zuen bere taldeak mozioak onartzen dituela «giza eskubideen urraketa salatzen dutelako». Halere, «garbi diogu mozio hauetan era partzialan adierazten dela jasaten dugun zapalkuntza. Izan ere, ETAk ere eskubide urraketa ugari sortarazten ditu eta mozioetan ez da hori aipatzen». Beraz, «KBTk eskubide urraketa guztiak salatzen jarraitzen du».

## Laburrak

### Santa Ageda bezperari buruzko bilera, bihar

**ANOETA** » Otsailaren 4ean Santa eskean atera nahi dutenen bilera bat egingo dute bihar, 12:30ean udaletxe aurrean. Bilerara etorri ez arren, ateratzeko asmoa dutenek igandean bilerara etortzekotan den bati esan behar diote ateratzeko asmotan direla.

### Odola ateratzeko aukera izango da etzi

**ANOETA** » Etzi, 19:00etatik 21:00etara, odol ateratzeko egingo dituzte Irurako herri eskolako aretoan. Ondoren, indarberritzeko mokadutxo emango dute. Irurakoak ez direnek ere atera dezakete bertan, baina odol-emailen txartela erakutsi beharko dute.

## Laburrak

### Altzon eta Ikaztegiaren erakundearen Sahararako bilketa

**ELKARTASUNA** » Tolosaldea Sahararekin elkarteak bideratu duen Saharara produktuak bidaltzeko kanpaina martxan da eta herriz herri ari dira bilketa egiten. Altzon, arrosa, azukrea, atuna, konpresak eta dilistak udaletxeko beheko aldean eta eskolan bertan bilduko dituzte. Epea hilaren 19an itxiko dute. Ikaztegiaren, berriz, hilaren 18an, eta produktuak kiroldegian ere utzi daitezke.

### Aurrera-Saiatzeko maila altuenen partidak bihar

**PILOTA** » Bihar Tolosako Beotibar pilotalekuan Aurrera-Saiatzeko hiru norgehiagoga jokatuko ditu Euskadiko Kluben Txapelketan. 11:00etan hasiko dira eta lehenengoan ohorezko senior mailako Igor Baez ariko da Lemoako pilotariaren aurka. Ondoren, 22 urte azpiko mailan Koldo Galarraga, Irurtzungo pilota eskolakoaren aurka eta bukatzeko, Senperena seniora Gure Txokoaren kontra.

**Zelai taberna**  
(Berastegi)  
alokatzen da  
606 74 24 08

**GAUR Urtarrilak 12** Txotx garalari hasiera emango zaio.

**ISASTEGI**  
sagardotegia  
Larunbat eguerditan irekita  
Isastegi Sagardotegia, S.L.  
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA  
Tel.: 943 65 29 64

**PILOTA PARTIDUAK**  
aspepilot.com  
**Urtarrilak 14 • Astelehena**  
**16:00**

**Galarza V - Galarza VI**  
**Aritz Lasa - Nalda III**

**BENGOETXEA VI - PATXI RUIZ**  
**EUGI - LASA III**

**Uriarte - Merino I**  
**Cabrerizo - Apeztegia**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**



**E Elkarrizketa****ASENTSIO ONDARZABAL** » Erein argitaletzeko sortzailea

# «Argitaletxeak ez dira nahi adina lan kaleratzeko gai»

**Tolosa** » Euskal Herriko idazle gehienak ezagutu ditu, eta haien lanak kaleratzeko lan egin du; egingoa baino egoera hobera iristea espero zuen.

**PANTXIKE AGIRRE (BERRIA)**

Lasai bizi da orain, baina agenda eskuetan dator. Izan ere, aukeratzekotan, berriz aukeratuko luke izandako lanbidea: idazle bilatu, harremanetan jarri, ezagutu, lagun egin, animatu... Asentsio Ondarزابalek (Hernani, 1934) duela zortzi urte utzi zuen Erein argitaletxean sorreratik eginiko lana. 70eko hamarkadan Tolosan piztutako euskalgintzaren eta kultur-gintzaren mugimenduak eraman zuen bide horretara, eta garai hartako gogoak luze iraun dion arren, kezkatu agertzen da orain.

**Nola harrapatu zintuen euskalgintzaren mugimenduak?**

Tolosan ikastola bultzatzeko deitu ninduten, 70eko lehen urte horietan. Antonio Labaien eta Juan Garmendiarekin hasi nintzen, besteak beste, ikastolaren sorrera antolatzen; ezkutuan hasi ginen, eta elkarrekin bat sartu behar genuela pentsatu genuen proiektua bultzatu eta sendotzeko. Baina, batzuek arriskua ikusten zuten, hitzaldiak eta antolatzen hasi eta politikoki lotuko zutela ikastola. Orduan banatu egin ginen: Lizardi kultur elkartea batetik eta Laskurain ikastola bestetik, bazkideak erdibitu egin ginen. Gero Oiarzunen egin genuen bazkari batean Lekuona-tarrak izan nituen ondoan, eta ni euskaltzalea izango nintzela eta ea bileretara joango nintzen esan zidaten. Hala hasi nintzen. Joseba Intxausti ezagutu nuen orduan, eta *Jakin* aldizkariarentzat harpidedunak bilatzen lagunduko ote nuen galdetu zidan; urtebete inguru aritu nintzen horretan. Gero berak ere asko lagundu zidan kultur taldeko lanetan, testuak egiten ere bai, artean nire euskara nahiko motel zegoen-eta idazteko.

**Euskaraz gain, bazen, ordea, besterik. Zein giro gogoratzen duzu?**

Orduantxe egin zen Burgosko prozesua eta gauzak asko ari ziren mugitzen. Baina, euskal kultura bazegoenik ere uste dut jende askok ez zekiela, eta hori adieraztea zen lehenengo helburua eta lana. Tolosan hamabostaldi kulturala antolatzen hasi ginen, 1972. urtea zela uste dut. Euskal kulturetiki bat egiteko gauza asko ukitu beharko genituzkeela pentsatzen genuen,

eta ez genekien zenbaterainoko gaitasuna izango genuen. Eta hasi ginen hitzaldiak ematen hizkuntzari buruz, ikastolei buruz, folklorea, artea... Artisten mundu horrengana jo behar ote genuen zaila zela, zaila izango zelako; baina ausartzen ez baginen ez genuela ezer egingo eta dei batzuk egin genituen. Harrera izugarria egin genuen, artistak nonbait agertzeko gogoarekin zeuden garai hartan, eta arrakasta handia izan zuen ekimenak; Oteiza ez zen izan, ez genuen harrapatu, baina bai Txillida, Mendiburu, Basterretxea... buru-belarri sartu ziren, gainera.

**Zeri begiratzen zenioten nola egin jakiteko?**

Egin ahala asmatu genuen, eta nahiko ongi ateratu zen. Buelta asko ematen genion erabaki bakoitzari, baina uste baino hobeto ateratu zen, eta oihartzun handia izan zuten ekitaldi haiek. Garai hartako idazle gehienak etorri ziren. Jende asko ezagutu nuen, eta horrek markatu zuen nolabait geroko nire ibilbidea.

**Ereinen sorreran parte hartu zenuen, hain zuzen, handik gutxira.** Sortzaileetako bat izan nintzen bai. Julen Lizundiarekin eta Andu Lertxundiarekin jardun nuen so-

**«Euskal kultura bazenik ere ez zekien jende askok, eta hori azaltzea izan zen lehen lana»****«Zein daukagu guk eredutzat? Norbaitentzat gu izango gara eredu, hori da gure erronka»**

rrera horretan. Ni dirua biltzen hasi nintzen, baita neronek jarri ere. Nik banuen idazleekin harremana, eta besteak ohituago zeuden editore lanetan, ideia asko eman zituzten. Nire arloetako bat literatura izan zen, haur, gazte eta helduentzako literatura. *Ipurbeltz* gazte aldizkariarekin hasi ginen.

**Mezenas baten antzera...**

Hitz lodi samarra izango da, baina lagundu nuen. Nik lantegi bat neukan, eta askotan aritu nintzen bilanetan. Baina, gero lantegia utzi eta

Ereinen sartu nintzen buru-belarri. Handik hartu dut erretiroa duela zortzi urte.

**Nola bizi zenuen zentsura?**

Egon bazegoen, baina askotan lodiak pasatu eta txikikeriekin bueltaka ibiltzen ziren. Bigarren aste kulturalan, adibidez, Ibarrolaren lan bat zegoen; orduan PCEkoa zen, eta zentsura pasatzera etortzen zen ordezkariak, Opus Dei-ko lagun batek, kendu egin behar genuela esan zigun. Guk esan genion ez genuela zentsuratzailerena egingo, artistak bidalitako obra zela. Erakusketa ixteko arrazoiak ez genuela ikusten, eta koarduari errezela jarri eta *zentsuratu* hitza jarriko geniola esan genion. Hori okerrago izango zela pentsatu zuten antza, eta aurrera egin zuen erakusketak. Hitzaldietako testuak, bestalde, aurretik erakutsi behar izaten genituen; barrerariaren, hizlariak nahi bezala irakur zezakeelako gero. Argitaletxean ez genuen arazo berezirik izan.

**Harreman berezia landu duzu idazleekin.**

Gustatu egiten zitzaidan nik neuk egitea lan hori, eta amaiera arte eutsi diot jarrera horri. Garai bateko euskal idazle gehienek Ereinen publikatzea lortu dudala uste dut. Sarrionandia izan da arantzaxoa: bide asko jorratu nituen harengana iristeko, eta baita argitaratzeko baimena lortu ere, baina azkenean ezkutatu zen eta galdtu nuen aukera. Idazle laguna da aurrena niretzat; gero, nire literatura jakintza mugatua izango da, noski, eta hutsune hori betetzeko modua da. Laguntzat hartu naute haiek ere. **Idazlearen ikuspegitik asko aldatu dira gauzak?**

Beharbada, oraingoek gauzak eginago topatu dituzte aurrekoek baino. Haiek asko lagundu zuten, batez ere literatur hizkuntza aurrerakoi eta modernoak ezartzen; arriskatu egin zuten eta ordaina jaso, baita lorerik handienak eraman ere, hor gelditu direlako finantza, Saizarbitoria, Lertxundi, Atxaga, Sarrionandia... Gazteak ere lanean ari dira orain, badakit, baina leku estuago izango duteloreak jasotzeko, eta hor egin daitezke, akaso, injustizia txiki bat, edo handi bat, ez dakit.

**Eta editorearen ikuspegitik?**

Asko ez da aldatu editorearen lana, baina lehen Ereinek egile asko hartzen bazituen, orain gutxiago hartuko ditu. Argitaletxe gehiago dau-




de, eta hori bada arrazoia, baina argitaratu ez da askoz gehiago egiten lehen baino. Eta zerbait gehiago egiten bada, idazle gehiago daudela kontuan hartu behar da: lehen-goak eta gazteak. Beraz, leku konpetentzia bat gutxienez badago, eta editorialak ez dira euskal literatura nahi adina publikatzeko gai askotan. Liburu asko, interesgarria izan behar du, idazle salduko, idazle ezagutzen ez delako. Horregatik, eragozpen asko dituzte atzetik datozenek.

**Merkatua da, beraz, arazoa?**

Nik uste dut 15 bat urte iraun duen bolada on bat izan dela. Jende asko hasi zen euskal literatura irakurtzen, berritasuna zelako eta hiz-

kuntza trebatzeko modua zelako: irakurtzen ikasten baduzu, hizkera ere hobetu egiten da, euskara aberastu. Baina, hori pasatu da, eta gaur egun beste motibazio batzuk egon daitezke. Gehiago esango nuke, hiztunak ere ez ditugu asko gehitu. Ikastoletan euskara asko erakutsi da, baina ez dakit erabat ongi egiten ari ote garen, guk nahi genuen bezalako ondorioak ez ditu behintzat, hori garbi dago. Arazo izugarria dago hor, eta ez literatura kontua bakarrik. Literaturak irakurleak izan ditzan hiztuna behar da, multzo handia, euskaraz pentsatzen duena eta euskaraz gozatzen duena.

**Zer diozu Durangoko Azokaz,**



ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

**poza ematen dizun garaia izango da?**

Garai batean bai, orain... Lehen beti joaten nintzen, aspalditik gainera. Orain kezka ere badut. Ez dut desanimorik sortu nahi, baina oso kezkatia naiz, gauzak oso ongi ikusi behar ditut gustura egoteko, eta, agian, ez naiz pertsonarik egokiena animoak emateko ere.

**Zergatik kezka hori?**

Murriztasunagatik esango nuke, oso gutxi garelako. Proporzioan idazleak gehiago izango dira. Gure egoera beste zein herriekin aldera dezakegu? Irlandak, adibidez, askatasuna lortu bai, baina hizkuntza ia erabat galdu zuen. Zein daukagu guk eredu gisa? Gu izango

gara eredu beste norbaitentzat, hori da daukagun erronka: herri txikia izanik aurrera ateratzea, hori izango da gure zereginik inportantena seguru asko.

**«Gustatu zait idazleekin nik neuk lan egitea. Uste dut lortu dudala gehienek Ereinen argitaratzea»**

**Beste kultur arlo batzuetan ere saiatu zara.**

Garai batean artista batzuekin jardun nuen. Eduardo Txillidak ni bitartekari nintzela ekarri zuen Tolosara bere eskultura. Lizardirentzat omenaldia prestatzen ari

gingen, eta Andu Lertxundik esan zidan irakurri zuela nonbait hurrengo obra poeta bati eskainiko liokeela Txillidak, hori zeukala buruan. «Joan hadi, amistadea dau-

**«Liburu asko, interesgarri izanda ere, ez dira salduko. Eragozpen asko dituzte ondorengoek»**

kak eta berarekin», esan zidan. «Ez dakit zenbaterainoko amistadea daukadan, baina ezagutzen diat eta joango nauk». Uste dut hurrengo egunean joan nintzela haren etxera. Egingo zuela, eta gustuko zuela Lizardirentzat izatea esan

zidan. Tolosa ikustera etorri zen, lekua topatu zuen eta han jarri zen. Udala aldatzera zihoan orduan, eta hamar urte pasatu ziren jartzerako. Etxera eraman zuen obra, jendea zirikatzeke, eta orduan hasi ziren gauzak mugitzen.

**Burgesia, enpresaburuak, ez dira euskal kulturaren inplikatu esan izan du Joan Mari Torrealdaik. Hala ikusten duzu?**

Ez dakit euskal burgesia zeri esaten zaion... Nik badakit gerra garaian nolako lanak izan zituen Lizardik euskaraz idazteko garaian. Sekulan gehiegi ez da egin euskal kulturaren alde, eta gaur ere ez da egiten. Diktadura baten barruan, jakina, askoz gutxiago, eta gerra

**» BIZITZAKO ARLOAK**

**■ Lizardi, idazlea.**

Garaiari aurreratua zegoen, eta euskalgintzan bultzatzaile izan zen. Ez nuen haren poesia tutik ere ulertzen, idazle askok aitortu dute hori; baina gaur askoz ere hobeto ulertzen dugu denok.

**■ Lizardi, elkartea.**

Kultur arloan hasi ginen. Politikoki askatasun batzuk etorri zirenean udalak hasi ziren gauza batzuk egiten, eta geldiune bategin genuen elkarren setan ez ibiltzeagatik. Baina udalek ez dute erabat bete.

Gero euskara eskolak ematen hasi ginen hutsune hori betetzeko, eta orain hasi dira berriz ekintza batzuekin.

**■ Tolosa.**

Gauza asko sortu dira hemendik. Batasun handiagoa lortzea nahi nuke euskara maite dugunon artean. Nik Euskal Herri osoa maite dut berdintsu.

**■ Bidania.**

Baserriak ixten ari dira bertan. Nik badut nireta. Behi piriniarrak salbatu nahi nituen, baina salbatua omen dago, oraingo, eta saldu egin nituen. Orain bertako arbolekin bete nahi dut. Garai batean, idazleen kontzentrazio leku ere izan zen, hainbatetan. Bederatzi hilabete egin zituen han Felipe Uriartek Everestetik bueltan, liburua idazten.

**■ Zaletasuna.**

Pilota, irakurketa eta zinema oso gustuko ditut. Artea ere, baina ez askorik ere.

**■ Inauteriak.**

Tolosan zentzu berezia dute, baina ez naiz toloxar porrokatu horietakoa.

hori izan ez bazen, beste historia bat izango genuen, gerra piztu zenean gauzak ongi mugitzen hasita zeuden eta.

**Herri ekimena lehen bezala orain ere beharrezkoa da?**

Pentsatzen dut lehen ere zaila zela, baina jendea mugitzen zen. Jendea mugitzeko gogoz zegoen; askotan asko ulertu gabe ere soka horretan sartzen zen. Orain unibertsitateko jendea daukagu, euskalduna. Hor beste mundu bat dago; zer kezka dituzten eta ez dakit.

**Eta egoera ekonomiko eta instituzionalak lagundu du?**

Lagundu du bai, baina ez dakit behar adina... Nahikoa ez da egiten, kritika politiko asko egiterik dago. Egia da, kulturaren jardutea zaila da, Espainian ere elkarren kontra aritzen dira, asko argitaratu eta saltzen duten arren. Hemen bestelako egoera dago.

**Ez zara baikorra belaunaldi berriari begira?**

Etsipen bat nabaritzen da, ez dago lehengo ilusioa. Etorkizuna ezezaguna zen guretzat, baina askoz hobea izango zela pentsatzen genuen, eta azkar etorriko zela. Errealitateak mugatu egin gaitu, uste ez genuen errealitatea izan dugu.



10°  
7°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 11°  
HOTZENA 7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Ikuskizunak

■ **Tolosa.** *Xuridin eta gorringo lakua-ren misterioa* haur ikuskizuna Leidorren, 17:00etan.

### Aisia

■ **Asteasu.** Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo 12-16 urteko gazteek eskaladarekin lehen kontaktua izan dezaten, doako ikastaroa Asteasuko frontoiko ro-kodromoan 11:00etatik 13:00etara. Materiala bertan izango da.

■ **Tolosa.** Abiba diskojaia Beotibar pilotalekuan 22:00etatik 05:00etara. Autobusak izango dira inguruko herrietatik.

■ **Zizurkil.** Gazte Topaketa Atxulondo Kultur-Etxean 16:30etik 19:30era: filmak, mahai-jokoak, musika eta lagun berriak egiteko aukera. Zizurkil, Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo 12-16 urteko gazteentzat. Gustuko musika eta jokoak eraman daitezke.

### Kontzertuak

■ **Tolosa.** Maika Maikovski (Bartzelona) eta Brandy Hips musika taldeen kontzertua Bonbernean 22:30ean.

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Xepla elkartearen batzarrak 15:e30ean lehen deialdia eta 16:00etan bigarrena: balantze ekonomikoa, ekitaldien txostena, zuzendaritza aldaketa, galde-erreguak.

■ **Tolosa.** Sahararrei laguntzeko janari bilketa abian da eskualdean. Arroza, dilistik, hegaluzea, azukrea eta konpresak utzi behar dira, Maxi Eroski, Eroski Center edota BM supermerkatuetan eta eskualdeko udalaxe eta Kultur Etxean.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Soy leyenda* filma ikusgai Leidor aretoan, 19:30ean eta 22:30ean.  
■ **Villabona.** *Soy leyenda* filma, 22:30ean, Gurean.  
■ **Villabona.** *Movida bajo el mar* gaztetxoentzako filma, 18:00etan, Gurean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, JM. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Hector faubel eta Sergio Gadea motorista valentziarrak (Herrialde Katalanak) autografoak sinatzen aritu ziren herenegun iluntzean. E. EZEIZA

# Motorista onenak gertutik

**Tolosa** » Sergio Gadea eta Hector Faubel motoristak izan ziren herenegun Goena dendan, autografoak sinatzen

### ESTI EZEIZA

Munduko motorista onenetako bi gertutik ikusteko eta ezagutzeko aukera izan zuten herenegun Goena dendaran atzo iluntzean hurbildu zirenek. Bertan izan baitziren Sergio Gadea eta Hector Faubel valentziarrak (Herrialde Katalanak). Hauek autografoak sinatzen eta gerturatutakekin argazkiak ateratzen aritu ziren. Bestalde,

dendan bertan kokatuta zegoen moto txundigarria ikusi eta bera- ren gainean jartzeko aukera izan zuten tolosarrek.

Gadea bi motoristetan gazteena da, 22 urte ditu eta 2006an, 125 GPko Munduko txapelketan bosgarren geratu zen. Urte horretan bertan, bost aldiz lortu du podiumean egotea. Faubel berriaz, urte bat helduagoa da, eta honek bere ibilbidean bi garaipen lortu ditu. Bestalde, 2006an, hirugarren postua eskuratu zuen 125 GPan.

Bi motoristen kasuan, 2006an lortutako postua izan da orain arteko onena. Dena den, oraindik ere gazteak dira eta ibilbide luzea dute aurretik.



Dendaren barruan kokatuta zegoen motor ikusgarri hau. ESTI EZEIZA

## A Agurrak



### Zorionak!

**Aratz.** 6 urte. Zorionak eta muxu asko Mitxelena familiaren partetik.



### Zorionak!

**Eneritz Agirre (Altzo).** Zorionak zure 3. urtebetzean, familia osoaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak